



Hernanik 1.000 urte

Egileak:

*Hernani Errotzen Memoria Historikoa Elkarte Kulturala
Nabarralde (Beñi Agirre)*

Itzultzailea:

Garlo (Itzulpen zerbitzua)

Antolatzailea:

Hernaniko San Joan Konpartsa (2014ko Ekainaren 27a)

Gure ibai eta bailarak orain 1.000 urte baino gehiago

Aitzinean, Urumea ibaiak sortzen zituen erriberei eta inguruko mendi-bailareei deitzen zitzaion Hernani. Gizakiaren eraginik gabeko ibarrak ziren oraindik eta urtaro euritsueta ur emariak erabat estaltzen zituen oraingo behe lurrak. Urumearen itsasoratze bide motzean urak libreago jaisten ziren eta itsasora gerturatzean padura zabalak sortzen zituen. Gaur zaila da imajinatzea nolako pasaila izango zen hura, erabat eraldatua iritsi baita gura.

Gizakia muinotan eta inguruko mendietan bizi zen. Gure arbasoen aztarna ugari daude Hernaniko mendi magal eta lepoetan: Igoain-Akolan trikuharriak, Ondi-Mandoegin harrespilak eta tumulu bat... Ehiztari eta fruta biltzaileak ziren gure arbasoak, mendialdea zuten maite, baina, Urumea ibaia ere elikaduraren hornitzaile ezinbestekoa zen. Askok aldatu da, oraintsu arte ibai motz honen ibar eta padurek izokin, ezkailu eta amuarrainek eskaintzen baitzituzten.



Eteneta

Aldatu ez direnak inguruko mendi eta muinoak dira.

Onddi-Adarra, Unamuno, Mandoegi... Guzti horietatik Urumeak jasotzen ditu Kantauri Itsasoraino garraiatzen dituen ur eta sedimentuak, milaka urteren poderioz erribera emankor sortu dituenak bere ibarretan.

Urumea ingurukoa lurraldea aberatsa zen baso mota atlantikoan: haritza, gaztainondoa, pagoa, hurrondoa eta beste hainbat espezie osatzen zituzten. Basoan, animaliek euren elikagaia lortzen zuten eta gizakiak egurrez hornitzen ziren. Egurra ezinbestekoa zen etxeak, urontziak eta lanabesak egiteko, etxea berotzeko eta, ikatz bihurtu ondoren burdindegien ekoizpenerako.

Garai hartako ibaietan egiten zen arrantzari buruzko albiste gutxi ditugu eta X-XI. mendeko dokumentuetan eskaintzen dizkiguten lehen aipamenei itxaron behar da. Atlantikora begirako ibaietan ohikoak ziren espezieak ezagunak dira: amuarraina, gaizkata, izokina, aingira eta kolaka. Oinarritzko teknika erabiltzen zuten arrantzarako, hau da, amua eta soka.

Oraingo Donostiako Ametzagaina muinoan, Urumearen eskuin ibarrean, Goi-Paleolitikoaren 1.700 pieza inguru aurkitu dituzte. Trikuharri eta harrespilen ondoren tokiko giza okupazioaren aztarnarik zaharrenak dira eta Isturitze eta Aizpitarte haitzuloetako bizilagunen garaikidetzat jotzen dira. Gizaki haiek ehiztariak ziren eta animalien atzetik ibiltzen ziren. Orein, bisonte, uro eta akaso mamutak ere ehizatzen zituzten duela 25.000 urte. Urumearen bazterrek beti izan ohi dira ehiza-leku aproposak.

Erresuma sortu baino lehen

Baskonia-Akitania dukerria deitu zitzaion antzinako Novempopulania euskaldunean frankoek ezarritako administrazio-barrutiaren zabaltzeari. Eauzeko eliz probintzia izendatzeko Baskonia izena erabiltzen hasi ziren. Baskoien aurka etengabe borrokan, 601an, Austrasia eta Burgundiako erregeek menpean hartu zuten Novempopulaniaren bizi ziren baskoiak. Urte berean Akitaniakotik bereizi eta Baskonia-Akitaniako dukerri hau sortu zuten. Genial galo-erromatarra izan zen lehen dukea (602-626). Dukerriaren lurraldea Garonatik Ebroraino iristen zen.



711an, Penintsulan arabiarrak sartu zirenean Eudon buruzagi baskoia Rodrigo godoarekin borrokan ari zen Iruñeko harresietan. Inbasioaren berri izan zuenean Rodrigok setioa utzi eta arabiarrak gelditzera abiatu zen. Tarik-ek Rodrigo garaitu eta arabiarrak berehala zabaltu ziren penintsulan barrena, galiarren esku zegoen Poitiers-eraino. 721ean, ordea, Eudonen armada izan zen Mendebalde osoan musulmanak garaitu zituen lehena: Tolosako gudua, 721ean. Hunaldo II.ak huts egin zuen frankoen aurka. Baskonian babestu zen eta Akitania-Baskonia dukerria hautsi egin zen. Baskoniako dukerria bakarrik geratu zen.



Hernaniarren esku hartzea baskoiekin

Hernaniarren oroimen historikoan Orreagako batailan parte hartu izana gogoan izan da. Udal artxi-bategian jasota dago gertaera hura XVII. mendeko dokumentu batean. Dokumentuak inongo froga historikorik ematen ez badu ere, argi erakusten digu bazela mende horretan baskoien balentriaz hitz egiten zuen oroimena, Espainiako erregearengandik mesede batzuk eskuratzeko erabili nahi izan zena. Frankoak garaituak izan ziren 778an, baina, ondoren ere itzuli eta 824a bitartean, Iru-



Karlomagnoren hilkutxa. Soldaduek babestutako Pampelun azaltzen da, frankoak erasoan eta ezkerrean Karlomagno bera harresia botatzen.

ñeko Erresuma sortu artean, baskoiekin borrokan bizi izan ziren. Frankoen dokumentu bati esker dakigu nola jantzen ziren garai hartako baskoiak.

Historiaren pasarte batean kontatzen da Ludobiko Pio bere aita Karlomagnoren aurrean euskaldunen usadioaren erara jantzita azaldu zela: tunika motz batez, hertsia eta biribila beheko erre-matean, mahukak eskuetatik zabalik, galtza luzez, ezproiez errematatutako botak, lantza bat eskuan zeramala.

Erresumaren sorrera

Iruñeko erresuma hiriburuaren inguruko bi familia piriniarren eskutik sortu zen: Enekotarrak eta Iñigotarrak. Sorrera horretan erabakigarria izan zen musulmandua izan zen beste leinu baten laguntza: Qasio edo Banu Kasitarrak. Azken familia honek Ebro ibairen inguruan indar handia zuen eta Zaragozako arabiarrekin harreman estua zuen. Eneko Aritza izan zen errege funtziotan jarri zuten lehenengo buruzagi baskoia.

Erdi Aroan, Antso II.a Abarka baskoiaren erregealdian (970 - 994), Hondarribiko muino batean hasi zen gaztelu mardul bat eraikitzen. Erromatarren



Oiarso portua Iruñeko lurrekin lotzen zuen bide erromatarraren hasieran, Txingudi badia ikusgai den leku estrategikoan. Gaur egun gaztelu hori zutik dirau, baina, gaztelarren konkistaren ondoren, Karlos V. paradorea izenarekin ezagutzen da ofizialki.

Antso III. Nagusiaren garaian izan zuen Nafar erresumak Iruñeko erresuma izenarekin lurralde hedapen handiena. Aturritik Ebrora eta Gallego ibaitik Kastro Urdializera. Europan ezagutua eta aitortua zen Iruñeko erresuma. Antso III.a Nagusia Goiz Erdi Aroko erregerik interesgarrienetako bat izan zen. Erregealdiaren hasieran tutore talde baten babesean gobernatu zuen: erregina izandako amona Urraka Fernandez, ama-erregina Ximena, bi obispo: Belosio eta Garcia (Ximeno), gorteko botiliarioa, erregearen maiordomoa, Gartzia Velázquez eta Oriolo Johaniz.

Antso Nagusia 1010ean ezkondu zen Muniarekin, Gaztelako Antso Gartzia kondearen alabarekin, eta Gaztelarekin harremanak sendotu eta mugak zehaztu zituen horrela. Bere erregealdia bi ildo politiko nagusiengatik nabarmentzen da: bat, erresumaren barne-antolaketa, tenentzia eta hiribilduen eraketa, Jakue Bidearen ofizialtzea eta erresumako monasterioetan Europako cluny-tarren erreforma ezartzea: Nafarroako Leiren, Aragoiko Haitzpeko San Joanen eta Errioxako Albeldan, denak Iruñeko erremaren barruan zirenak; eta bi, erresuma zabaltzen saiatzea Burebako Oka mendietan muga jartzea, Sobrarbe berreskuratzea, Ribagorraz jabetzea, Pallars-eraino iristea eta euskal mintzaira zuten Nafarroako lur guztietara bere agintea zabaltzea.

Aipatutakoez gain, osaba zuen Gaskoinako Antso Gilen bere esanetara izan zuen. 1023. urtean Antso III.a Nagusiak Lapurdiko bizkonderria sortu zuen bere lehengusu Lupo Antsoarentzat eta berau Baionan finkatu zen. Zuberoa, Gillermo I.a Indartsua kondeordearen esku utzi zuen eta Baigorriko bizkonderria sortu zuen (1033); ekintza horiek, sistema feudalaren barnean kokatu ohi dira, hala ere, euskal batasunerako ondorio erabakigarriak ekarri zituzten.



XI. mendean, Jakue bideak Iruñeko erresuma gainerako Europako erresumekin harremanetan jarri zuen. Gaur Euskal Herria dena derrigorrezko pasabidea bihurtu zen erromesentzat eta horrek garapen ekonomiko berria ekarri zuen berarekin. Erromesek otorduak, lo egiteko lekuak, eritegiak eta zerbitzuak behar zituzten. Aldi berean, Europako kultur eta artearen mugimenduen berri ekartzen zuten. Horien guztien ondorioz, fedea bultzatuta elizaren garrantzia ekonomikoa eta politikoa lehen mailan jarri zuten.

Hernani dokumentu historikoetan

Hernani 2011 Udal Aldizkarian aipatu zen jada, Antso III.a Nagusia erregearekin (1004-1035) azaldu zela Hernaniren eta inguruen deskribapen zehatza. Jatorrizkorik ez dagoen testu baten kopia izan daitekeen dokumentuan, jasotzen da Hernaniren eta inguruen lehen aipamena. Antso III.a Gartzes Nagusia errege baskoiaren dohaintza bat da. 1014an, egungo Antigua auzoan zegoen San Sebastian izeneko eliza Leireko monasterioari egindako dohaintza, alegia:

"... damus et offerimus ipsi Deo, et sanctis praenominatis, et Monasterio Leiorensi,..., in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua..., cum terris et pomiferis, et piscariis maritimis, et montibus, et collibus, vallibus, et planis, censibus, et pascuis, decimis primitiis, et oblationibus, et cum omnibus, omnino pertinentibus eidem monasterio, terminis in circuitu, in mari, et extra mare, sicuti abuerunt et tenuerunt antecessores nostri, et nos usque hodie".

(Itzulpena)

"... eman eta eskaintzen diegu Jaungoiko berari eta jada aipatutako santuei eta Leireko Monasterioari..., Hernaniko mugetan, itsasoaren ondoan, San Sebastian esaten zaion Monasterioa eta bere lurraldea..., lurrekin, sagastiekin, itsas arrantza tokiekin, mendi, lepo, bailara, zelai, zerga, larre, hamarren abantaila, eskaintza eta edozein ondare eta edozein moduan esandako monasterioari, inguruan, itsas barruan zein kanpoan dagozkionak, gure arbasoak eta guk geuk gaur egun arte ditugun bezala".

Azpiarragarria da pomiferis sagarrondoak daudela aipatzen duela eta et piscariis maritimis... in mari, et extra mare bereizten dituela; hau da, itsasoko arrantza eta barrukoa, ibaietakoa alegia, ba daudela esaten duela. Dokumentu horretan gainera, latinez idatzia izan arren, eta elizen izenak ere latinez eman arren, euskal izenekin identifikatzen diren toponimoak erabiltzen dira: Itzurun, Irudita, Anaiz, Antzieta, Zuarzaiate, Larraburu eta abar.

"quam antiqui dicebant, Yzurum cum Ecclesiis suis scilicet Beatæ Mariæ, et Sancti Martyris Vincentii, cum illo cubilare de Yrurdita usque ad Anaizos, cum illo cubilare de Anaizos usque Albizungo, cum illo cubilare de Albizungo usque Ancieta, cum illo cubilare de Ancieta usque Zuarzaiate, cum illo cubilare de Zuarzaiate usque Bagozu, Larraburum cum illo cubilare de Bagozu Larraburu, usque Lohizta, cum illo cubilare de Lohizta usque illa Freza de Zopites, de illa Freza de Zopite usque ad litus maris:..."

(Itzulpena)

"Arbasoek Itzurun deitzen zutena, haren elizekin, dakigunez Santa Maria eta San Vicente Martir, Irurditako lurrekin Anaizeraino, Anaizeko lurrekin Albizuneraino, Albizungo lurrekin Antzietaraino, Antzietako lurrekin Zurzaiateraino, Zurzaiateko lurrekin Bagozu-Larrabururaino, Bagozu-Larraburuko lurrekin Loiztaraino, Loiztako lurrekin Zopiteko arrastoraino (zokoraino) itsasertzeraino..."

Beste dokumentu batean, Nafarroa eta Aragoiko Pedro I.a erregeak 1101ean berretsi egin zuen Leire monasterioari eginiko dohaintza. Horretan, Donostiako itsas aldeko lurak arbasoen "Izurun" izenaz ezaguna zela ere aipatzen da.

Laurogeita zazpi urte beranduago dokumentu bat berresteak, jatorrikoa ezagutu ala ez, lehendik dohaintza bat bazela erakusten du.

Honetan ere in finibus Ernani, cum sua uilla zuzenean aipatzen da.

Hec est carta donationis, siue confirmationis, quam facio, Ego Petrus gratia Dei rex Aragonensium ac Pampilonensium, Domino Deo Salvatori Leirensis cenobii et Sancte Marie, sanctisque martiribus Nuniloni atque Elodie, quarum corpora ibidem requiescunt et dompno Regimundo abbati, ceterisque fratribus presentibus et futuris ibidem Deo seruiantibus. In primis dono et confirmo, illam æclesiam Sancti Sebastiani que est in litore maris, in finibus Ernani, cum sua uilla, cum suis terminis et pertinenciis omnibus, terris, montibus et uallibus, planis, arboribus pomiferis et in pomiferis, cum suis maritimis, pascuis, censibus, quemadmodum Rex Sancius Pampilonensium quondam predicto monasterio Sancti Salvatoris,

(Itzulpena)

Hau da nik Pedrok, Aragoiar eta Iruindarren erregeak, jainkoaren graziari esker, egiten dudan dohaintza eta berrespena jainkoaren Salvatore Leireko monasterioari eta Santa Mariari eta bertan euren gorpuen atsedean hartzen duten Nunilona eta Elodia martiriei. Dohaintzan ematen diot Raimundo Abadeari eta gainerako orain eta etorkizunean esandako monasterioan Jainkoa zerbitzatzen dutenei. Lehenengo, dohaintza egin eta berresten dut Hernaniko mugetan eta itsasoaren ondoko San Sebastian esaten zaion eliza hura, haren herriarekin, bere lur eta dagokion guztiekin: lurrak, mendiak eta bailarak, zelaia, fruta-arbola eta fruitu ematen ez duten zuhaitzekin, haren padura eta larreak, eta zergak (lehen ere) Antsok, Iruindarren erregeak Leireko San Salbadorrri eman eta baieztatu zion bezalaxe.

Aragoi eta Iruñeko Pedro erregearen 1101eko dohaintza horretan beste lur sail bat eransten dio aurrekoek egindakoei: Oroztegi

Super hee autem addo ego prefatus Rex Petrus et dono illam pardinam que uocatur Oroztegui, cum suis terminis et appendiciis omnibus, terris cultis et incultis, pascuis, arboribus fructiferis et infructiferis, et cum illa aqua que dicitur Ur humea, que est pertinencia de Oroztegui. Hec omnia que dicta sunt, laudo, dono et confirmo ego rex Petrus, Deo et Sancto Saluatori Leirensi monasterii,

(Itzulpena)

Esandakoaz gain, nik, aipaturiko Pedro erregeak, dohaintzan ematen dut Oroztegi deitzen dena, bere lurralde eta jabego guztiekin, lantzeko eta lantzeko ez diren lurrekin, larreak, fruta-arbola eta fruiturik gabekoak eta "Ur humea" deitzen den eta Oroztegiri dagokion urekin; esanda dau den hauek guztiak izendatu, dohaintzan eman eta berresten diet nik, Pedro erregeak, Leireko San Salbador monasterioari.

Beste lan eta garai baterako utziko dugu gaia, baina, nabarmendu nahi dugu Urumea ibaiari deitzeko era: Ur humea.



Leireko monasterioa

Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara

Atapuerkako bataila galtzearekin hasi zen Iruñeko Erresumaren galera Gaztela eta Aragoiko erresumen fabore. 1054ko bataila horretan, Fernando I.a Gaztelako erregeak bere anaia Gartzia Iruñeko erregea hil ondoren, Bureba aldeko lurretan sartu zen. Hala eta guztiz ere, Arabako eta oraingo Gipuzkoako lurrak eta tenentziak jatorrizko baskoien erreinuan jarraitu zuten.

Garai honetako biztanleak zereala erein eta biltzen zuten, lihoa landu, mahastiak baziren, sagarrondoak, sagardoa egin, fruta bildu eta baratza xumeak zituzten. Hala ere, jarduera ekonomiko nagusiak abeltzaintza, artzaintza eta basoko egurrarekin lotutakoak ziren. Urumea ibaiak padura zabala sortzen zuen oraingo Donostiako lurretan, horregatik, ontziak barrualdean babesten ziren. Ibaiko arrainen harrapaketa eta gertuko itsasoko arrantza osatzen zuten jendearen biziraupena.

Jakubidea Hernanitik barrena eta gaskoinak

XII. mendean populazioa handitu egin zen. Arrazoi zehatzik ezagutzen ez bada ere, hainbat alderetik eragin zuten populazioa handitu eta zabaltzean: bikingoen erasoak amaitu ziren eta barnealdean handitzen ari zen populazioa itsas aldera jaitsi zen. XI. mendearen azken aldera jada kostaldeko Jakue bidea erabiltzen zuten Europako erdialdeko erromesek. Irun-Hondarribiko lurretan Jakue bidea bitan banatzen zen. Bata, Jaizkibel iparraldetik igarota Donostiara iristen zen kostaldetik; eta bestea, Oiartzundik, Santiagomendi gainetik eta Astigarragatik Hernanira iristen zen. Erromes batzuk kostaldetik jarraitzen zuten eta beste batzuk Donostiatik Hernanirantz abiatzen ziren besteekin batera Urnieta, eta Andoaindik Oria ibaian gora Arabako lautadara.

Hasierako erromesek euren ohiko jantziekin egiten zuten bidea, baina pixkanaka, bideari eta klimari egokitzen zen arropa erosoagok nagusitu ziren. Beroki motza, hankei trabarik ez egiteko ibilian. Larruzko bizkarrekoa hotzari eta euriari aurre egiteko. Hegal zabaleko kapela, eta makila luze bat, punta burdinduna piztiengandik defendatzeko, eta handik zintzilik kalabaza, ura eramateko. Erromes bieira bat, oso ohikoa dena Galizian, zintzilikatzen zuten itzulian eta denboraren poderioz, beira bat eramateak Santiago de Compostelan izan zela esan nahi zuena.



Garai horretan, Landetatik higitutako areak Baionako bokalea itsutu eta erabilera murriztu egin zuten; gainera, 1154an, Leonor andreak ezkontza bidez Akitaniako Ingalaterrako erresumaren mende jartzeak Iparraldeko jende asko hegoalderantz ihes egitea eragin zuen. Bidasoa eta Oria artean finkatu ziren; hiriaren toponimian ageri da gaskoi haien arrastoa: Montpas, Urgull, Morlans, Polloe etab. Donostia, arrantza portu izateaz gain, itsas komertzioan ere hasi zen.

Donostia erresumaren itsaso-portua

Ikusten denez, itsasertzak seguruagoak izanik eta itsas merkataritzarako portuak bertan finkatzea abantaila ematen zuela jakinik, populazioak eta botere ekonomikoak ibaiaren behera egin zuten. Hortaz, XII. mendean emandako Donostiako Foruak lur-eremu zabalagoa zehazten du:

“Dono ad populos de Sancto Sebastiano, de Undarabia usque ad Oriam, et de Arrenga usque ad Sanctum Martinum d’Aran totum saltum quod ego habeo intra terminum, et totum quod ibi est sit de realengo”.

(Alegia)

“Donostiako herritarrei ematen diet Undarabiatik (Hondarribitik) Oriaraino eta Arrengatik (Errenga mendia, Oiartzun eta Lesakako mugan dagoena izan daiteke) Aranorainoko lur eremuen barruan jabegoan dudana eta bertan erregearena den guztia”.

Ez da gorde, beraz, eta ez da ezagutzen Donostiako Foruaren datazioa. Historialariek Antso VI.aren garaian (1150-1194) emandakoa dela aitortzen dute. Halaber, Jaka (1135) eta Lizarra (1164) hiriek jasotakoen antzekoa da, baina itsasogintzarako arau bereziak ezarritik. Hiri gutunak hainbat erraztasun ematen zien frankoei bertan lekutu zitezen: salerosketaren gaineko zerga bereziak ez ordaintzea eta bertakoekiko merkataritzarako abantailak adibidez. Beraz, pentsa daiteke Donostiako Foruaren idazkera egoera berezi hau gertatutakoan, hau da mendearen erdialde hasieran, idatzi zela.

XII. mendekoa da “Santa Catalina” itsasgizonen kofradia. Bere baitan itsas jarduera anitzeko bizibideko jendea biltzen zen: marinela, maisu, merkataria, lemazain eta abar. Alexandriako Santa Katalinari eskainitako elizan biltzen ziren, Donostiako harresietatik kanpo ezagutzen ez dugun Urumea barruko ibai-ertz batean.

Euskal kostaldeko merkataritza-ontziari nafar edo baionar itsasontzi deitzen zitzaion, concha edo **coca bayonesa** izenez ere ezaguna zen. Ontzi sabel zabalekoa zen, zamarako egokia eta eraman erraza. Dirudienez, korasta lemarren posizioak ematen zien gidatzeko erraztasuna ordura arte txopako arraun baten bidez gobernatzen ziren ontzien aldean. Lemaren lekualdatzeak iraultza eragin zuen garaiko nabigazioan. Sabel zabalekoa izateak, berriz, sakontasun gutxiko ibaietan barrena sartzea ahalbidetzen zuen. Urumean, egungo portu auzoraino erraz iristen ziren eta ur emari handiko garaietan gorago ere iristen ziren. Aireak ibaian gora bultzatzen ez zuenean lurretik laguntzen zuten abereei ontzia sokaz lotuta.




Nola janzen ziren euskaldunak

Maila sozial guztietako herritarrak antzera janzen ziren. Janzkien kalitateak, apaindurak eta oihalmotak egiten zuten bereizketa. Gehien erabiltzen ziren ehunak etxean landutako lihoa eta artilea izaten ziren. Zeta, orokorrean, goi mailakoek bakarrik ibiltzen zuten eta giro hotzetik babesteko larrua erabiltzen zen. Orokorrean ez ziren asko makilatzen, baina emakumezko aberatsek koloretea, eta ezpainetakoak erabiltzen zituzten. Urrezko eskumuturrekoak, eraztunak eta koilareak ere aberatsek erabiltzen zituzten.

Jende gehienak ondu gabeko larru iletsuz egindako abarkak janzen zituzten, oinetara lokarritz lotuak. Aberatsek, berriz, punta zorrotza zuten zapatak erabiltzen zituzten. Gizonezkoek ile luzea sorbaldaraino, bizarra eta bibotea zeramaten; emakumezkoek ere ile luzea, erdiko marrarekin aske edo trentzatua. Trentzak neskek emakume bihurtzen zirenean edo ezkontzen zirenean jartzen zituzten. Txano bat gainjantziari itsatsita erabiltzen zen, eta bai gizonezkoek zein emakumezkoek erabiltzen zuten. Emakumezkoen artean burukoak ere garai honetan hasi ziren erabiltzen.

Gizonezkoek belaunetaraino iristen zen soineko beltza, jipoia, galtzerdiekin (oihalezko galtzerdi luzeak) eta gainean artilezko kapusaia erabiltzen zuten. Orokorrean gizonezkoen jantzia emakumezkoena baino motzagoa izaten zen. Zaldunak eta soldaduak armadurak eta metalezko sareak erabiltzen zituzten gorputza estaltzeko.


Emakumezko gehienek soineko sinpleak erabiltzen zituzten gerriko batekin lotuta, orkatilaraino edo motzak erabiltzen zituzten lanerako erosoagoak zirelako. Emakume aberatsek janzkiak finagoak erabiltzen zituzten, oso luzeak eta askotan gerrikoa zabala jartzen zuten sabel osoa babesteko eta bular aldea nabarmentzeko.



5a



b



Nafar itsasaldearen 1200eko konkista

Nafarroako Antso VI.a Jakintsuak lehenago Donostiarekin egin zuen bezala Gasteiz hiria harresitu eta gotortu egin zuen. Gaztelak ordurako erresumaren hego-mendebaldea eraso zuen etengabe. Bureba, Errioxa eta Lope de Haroren laguntzaz Bizkaiaren mendebaldea galdu zen Gaztelaren mesedetan. Gaztelako Alfontso VIII.ak 1199. urteko udan Gasteiz hiria setiatu egin zuen eta 1200eko lehenengo hilabetetan Araba, Durangerria eta oraingo Gipuzkoako lurrak inbaditu zituen. Gerra horrek Nafarroan haustura politikoa ekarri zuen eta haustura horrek euskal herriarren batasunean zauri handia suposatu zuen. Hernani Gaztelan pean geratu zen.

Alfontso VIII.ak ingelesez mendeak Akitaniarekin eta Frantziarekin komunikabide zuzena, itsasertz, portuak eta marinel trebatuak lortu zituen. Gaztela izan zen konkistari etekina atera ziona. Nafar tenentziak konkistatu ondoren, garaiko nazioarteko Atlantiko Ozeanoan merkatal gune garrantzitsuak ziren Mutriku, Getaria, Donostia, eta Hondarribiko itsas-portu nafarrak, Gaztelako erreinuak hartu zituen. Ondoren, Gaztelako erregeak konkista finkatu nahian, foru baieztapenak, pribilegiok eta Hiri-Gutunak eman zizkien.

Kostaldea finkatu ondoren, Gaztelak barrualdeko Jakue Bidean jarri zuen interesa. 1256an Segura, Ordizia, Tolosa... harresitu, hiribildu bihurtu eta oraingo Nafarroa Garaiarekin borrokarako eta inbasiorako erabili zituen.

Eta noiz harresitu zuten Hernani? Badakigu 1014a baino lehenagotik ere San Sebastian de Hernani monasterioa bazela itsasoaren ertzean, eta Hernani erabiltzen zela "Ur humea" ibaiaren bialarak eta horiei zegokien nafar tenentzia izendatzeko, baina ez dago inongo dokumenturik, ez benetakorik ez faltsuturik, Hernaniko kaskoa noiz harresitu zuten jakiteko.



Nafarroako ANTZO VI (JAKINTUAK)



Gaztelako ALFONSO VIII

Orain arte uste izan da Hernani XIII. mendean harresitu zuela Gaztelako erregeak, Segura, Ordizia eta Tolosarekin batera. Hori baieztatzeko; batetik, "logikaren" teoria erabili izan dute: lerro berean baldin badaude garai bertsuan sortuko zuten! Eta bestetik, Tolosan egindako Gipuzkoako Batzar Orokor batean Hernaniko ordezkariak Hiri Gutuna sute batean galdu zutela balizko adierazpen ba-tean. Batzar hori egin zenik, ordea, ez dago inon egiaztatuta.



Aitzitik, 1379. urtean Donostiako eta Hernaniko kontzejuek Urumea ibarreko mendien aprobetxamendurako adiskidetasun-agiri bat sinatu zuten. Beraz, Donostia eta Hernani bi herri bereizi bezala agertzen dira hitzarmen horretan. Horrez gain, badago beste berezitasun bat: José Luis Orella Unzuéren esanetan Donostiak eta Hernanik Jaka-Lizarrako Forua oinarri hartuta jasotzen dute Hiri-Forua eta Tolosa, Ordizia eta Segurak berriz, Gasteizkoa.

Hala eta guztiz ere, bada Hernaniren aipamen bat urte batzuk lehenago. 1332an, Gaztelak Nafarroaren kontra sortutako gerraren testuinguruan Nafarroako ejertzitoak oinaztarren esku zegoen Hernaniko Ahaide Nagusien etxe batzuei su eman ziela jasota dago dokumentuetan. 1330ean, nafarrek Beltran Ibañez Gebarakoaren laguntza Lazkaoarren gotorlekua eraso zuten, 1332an, berriz, Beltran laguntzera joan behar izan zuten Hernanira. Altzega oinaztarra setiatu baitzuten bertan. Herriari su eman eta Hernani kiskalita geratu zen.

Hiribilduak sortzearekin batera Ahaide Nagusien aberastasun gosea handitu egin zen gaztelarren eraginez eta Gaztelarekin batera aritu ziren "gaizkileen muga" izeneko lerroan Nafarroako erresumaren kontrako gerran. 1512an, lehenengo soldaduak Goizuetan barrena sartuta, Iruñea errenditu eta konkistatu ondoren, Iruñean 1512ko uztailaren 25ean, Santiago egunean sartu ziren eta 1515ean, Burgoseko Gorteetan eta Nafarroako ordezkariarik gabe, Pirinioetatik beherako euskal lurralde guztiak Gaztelaren pean jarrita itxi zuten Aragoi-Gaztelako erregeek eta Erromako elizak mendeetan amestu zutena: Santiago y cierra España.

Nuestros ríos y valles hace más de mil años

Las riberas formadas por el río Urumea y los montes y valles circundantes se conocían antiguamente con el nombre de Hernani. Los valles no sufrían el influjo de los seres humanos y en épocas de lluvia el caudal cubría por completo las actuales tierras bajas. En el trayecto más corto hacia la desembocadura del Urumea las aguas bajaban de modo más libre y al aproximarse al mar se formaban amplias marismas. En la actualidad resulta difícil imaginar qué tipo de paisaje sería aquel, debido a que arriba a nuestros días completamente transformado.

El ser humano habitaba las colinas y los montes circundantes. Así, se hallan numerosos rastros de nuestros antepasados en las laderas y en los collados del término de Hernani: Los dólmenes de Igoain-Akola, los crónlech de Onddi-Mandoegi y un túmulo... Nuestros antepasados eran cazadores y recolectores, amaban la montaña, pero, asimismo el río Urumea era fuente indispensable de nutrientes. Ha sufrido una transformación notable, ya que hasta no hace mucho las vegas y marismas de este corto río ofrecían un variado conjunto de salmones, piscardos y truchas.

Los montes y colinas del entorno no han variado. Onddi-Adarra, Unamuno, Mandoegi... De todos ellos recoge el Urumea aguas y sedimentos que transporta hasta el mar Cantábrico, y durante miles de años ha creado en sus valles unas riberas muy fértiles.



Las tierras ubicadas en torno al Urumea eran ricas en bosque de tipo atlántico: robles, castaños, hayedos, avellanos y otras especies. En el bosque los animales hallaban su sustento y los humanos se abastecían de leña. La madera era indispensable para fabricar casas, embarcaciones y herramientas, para calentar la casa, y también como combustible para las ferrerías, tras haber sido convertida en carbón.

Contamos con pocas noticias de la pesca que se realizaba en aquella época y hay que esperar a los testimonios que hallamos en los documentos de los siglos X-XI. Son conocidas las especies que en los ríos de la vertiente atlántica eran habituales: truchas, esturiones, salmones, anguilas y sábalos. Usaban la técnica básica para la pesca, es decir, anzuelo y línea.

En la colina de la actual Ametzagaina de San Sebastián, en la margen derecha del Urumea, se han hallado alrededor de 1.700 piezas del Paleolítico Superior. Tras los dólmenes y crónlech, se trata de los restos más antiguos de la ocupación humana del lugar y se consideran coetáneos de los habitantes de las cuevas de Isturitze y Aizpitarte. Aquellos humanos se dedicaban a la caza y perseguían a los animales. Cazaban ciervos, bisontes, uros y quizá mamuts hace 25.000 años. Los márgenes del Urumea han resultado siempre lugares adecuados para la caza.

Antes de la formación del reino

